

ELENA UNZUETA TORREK, HERRI  
ADMINISTRAZIOARAKO ETA ERAKUNDE  
HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA KONTSEILUKO  
JARDUNEKO IDAZKARI ANDREAK (Ahaldu Nagusiaren  
apirilaren 27ko 56/2020 Foru Dekretu)

**HAUXE EGIAZTATZEN DU:**

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hogeiko** maiatzaren hamabian egindako bileran, erabaki hau hartu zuela, besteak beste: **Eguneko Aztergaien Zerrendako 24. gaia.**

**"24.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZERTARAKO ETA, "GAZTEDI BIZKAIA 2020" PROIEKTUAREN BARRUAN, 2020KO EKITALDIARI DAGOKION EBALUAZIOA ONESTEKO ETA GAZTERIAREN ALORREAN ALDUNDIAREN EKINTZEN 2020KO EKITALDIKO HASIERAKO PROGRAMAZIOA ONESTEKO.**

**Lehenengoa.- "Gaztedi Bizkaia 2020 proiektua"** delakoaren barruan **2019ko** ekitaldirako gazteriako foru ekintzen ebaluazioa onestea, **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO GAZTERIAREN FORU BATZORDEAK** 2020ko martxoaren 31n egindako bilerako aktan jasotako baldintzetan. Testua, jasota gera dadin, bilera honen Aktari gehitu zaio 12. eranskin gisa.

**Bigarrena.- "Gaztedi Bizkaia 2020"** delako proiektuaren barruan 2020ko ekitaldirako gazteriako foru ekintzen hasierako programazioa onestea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Gazteriaren Foru Batzordeak 2020ko martxoaren 31n egindako bilerako aktan jasotako baldintzetan. Testua, jasota gera dadin, bilera honen Aktari gehitu zaio, aurretik adierazitako eranskinean.

**Hirugarrena.-** Ahaldu Nagusiaren Kabineteko buruari eta, haren orde, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ahaldu Nagusiaren Kabineteko Koordinazioko Zuzendaritza Nagusiaren titularrari ahalmena emango zaio, 2020ko ekitaldian "Gaztedi Bizkaia 2020" proiektua behar den bezala betetzeko eta garatzeko beharrezko ikusten dituen neurriak eta erabakiak hartzeko.

**Laugarrena.-** Erabaki honen berri ematea Foru Sail guztietako Zerbitzu Orokorren Buruzagitzei.

**Bosgarrena.-** Gazteriaren alorrean Aldundiak gauzatutako ekintzen 2019ko ebaluazioa eta 2020ko hasierako programazioa hedatzea baliabide telematikoen bidez".

Eta jasota gera dadin, eta Akta oraindik ez dela onetsi ohartarazita, honako hau egin da, Bilbon, bi mila eta hogeiko maiatzaren hamabian.

ELENA UNZUETA TORRE, DIPUTADA FORAL DE  
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES Y SECRETARIA EN FUNCIONES DE LA  
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA (Decreto Foral del  
Diputado General 56/2020, de 27 de abril.)

**CERTIFICA:**

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en reunión celebrada el día **doce de mayo de dos mil veinte**, adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo: **Asunto nº 24 del Orden del Día.**

**"24.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA APROBACIÓN, DENTRO DEL PROYECTO "GAZTEDI BIZKAIA 2020", DE LA EVALUACIÓN CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2019 Y DE LA PROGRAMACIÓN INICIAL DE LAS ACTUACIONES FORALES EN MATERIA DE JUVENTUD PARA EL EJERCICIO 2020.**

**Primero.-** Aprobar, dentro del Proyecto "Gaztedi Bizkaia 2020", la evaluación de las actuaciones forales en materia de juventud correspondiente al ejercicio 2019, en los términos adoptados por la **COMISIÓN FORAL DE JUVENTUD DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA**, en la reunión celebrada el día 31 de marzo de 2020, cuyo texto para constancia, se une al Acta de la presente reunión como Anexo nº 12.

**Segundo.-** Aprobar, dentro del Proyecto "Gaztedi Bizkaia 2020", la programación inicial de las actuaciones forales en materia de juventud previstas para el ejercicio 2020, en los términos adoptados por la Comisión Foral de Juventud del Territorio Histórico de Bizkaia en la reunión celebrada el 31 de marzo de 2020, que se adjunta en el mismo Anexo.

**Tercero.-** Facultar a el/la Jefe del Gabinete del Diputado General, y en su sustitución, a la persona titular de la Dirección General de Coordinación del Gabinete del Diputado General de la Diputación Foral de Bizkaia para adoptar las disposiciones y medidas necesarias para la correcta ejecución y desarrollo del Proyecto "Gaztedi Bizkaia 2020" para el ejercicio 2020.

**Cuarto.-** Comunicar el presente acuerdo foral a las jefaturas de los Servicios Generales de todos los Departamentos Forales.

**Quinto.-** Dar difusión a través de medios telemáticos de la evaluación correspondiente al ejercicio 2019 y de la programación inicial prevista para el ejercicio 2020 de las actuaciones forales en materia de juventud".

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada, se expide la presente, en Bilbao, a doce de mayo de dos mil veinte.

